

## 700 metrotik beherako alertekin A-15 autobidearen Gipuzkoako aldea erabat itxiko da

***Urtarrilean hasiko dira Oindolar eta Gorosmendiko lanak, eta obrak hasten direnean, elurrarekin ibilgailu astunek N-I errepidetik edo Sakanako autobiatik zirkulatu beharko dute, eta arinek Berastegitik Tolosara doan GI-2130 errepidea erabili ahal izango dute.***



Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztu ditu 2022-2023 Neguko Bidezaintza Planaren xehetasunak. Plan horretan, aurtengo neguan A-15eko tunelen berritzearekin jarraituko denez, autobidea itxiko dela nabarmentzen da, Gipuzkoako aldean, betiere elur-arriskua 1. mailakoa edo handiagoa bada. Horixe iragarri du Bide Azpiegiturretako diputatu Aintzane OiARBidek. Aurreratu duenez, datorren urtarrilean hasiko dira Oindolar eta Gorosmendiko tuneletako estaldura sendotzeko eta instalazioak egokitzeko obrak, eta elurra kentzeko kamioiekin trafiko-desbideratzeetatik ibili ezin denez, lanak hasten direnean, autobia ixteko erabakia hartu da. «2023ko urtarrilean ekingo diegu bi tunelak eraberritzeko lanei, eta obrekin hasten garenean, Belabietako eraberritzearekin egin genuen modura, erabat itxiko dira, ibilgailu guztientzat, bi galtzadak, Berastegiko lotunearen eta Andoaingo lotunearen artean, betiere Euskalmeten alertek 700 metrotik beherako elurra iragartzen badute. Hala ere, urtarrilera arte, ez da autobidea itxiko, beharrezkoa ez bada», zehaztu du diputatuak, eta gehitu du aurten ere Telegram ELURRA A-15 NIEVE kontuan unean uneko informazioa jasoko dela. «A-15a moztuz gero, Nafarroako taldeekin koordinatuko da trafikoa beste ibilbide batzuetatik desbideratzea. Gainera, GI2130 errepidetik kamioiak igarotzea debekatuko da, seinale bertikalak jarriz, eta Trafikoarekin koordinatuko da etenaldi hori eraginkorra izan dadin». Andoain-Iruñerako galtzada Andoainen moztuko da, eta ezin izango da ibilgailurik sartu. Iruña-Andoain norabideko galtzada errei batera estutuko da Berastegiko lotunearen inguruan, eta ibilgailuak lotunera desbideratuko dira. Lotunean, Ertzaintzak ibilgailuak diskriminatuko ditu, eta ibilgailu astunak Nafarroarantz A-15 errepidetik bideratuko ditu.

Aintzane OiARBidek, bere agerraldian, azaldu du, elurra ikusita, A-15 autobideko zenbait ekipo N-I errepidera jaitsiko direla eta beste bi ekipok laguntza emango dutela Tolosatik Leitzara doan GI-2130 errepidean. «1-4 arrisku-mailak aktibatzen direnean, A-15 errepidearen Berastegi eta Leizta arteko tartea irekita mantenduko da», argitu du Bide Azpiegiturretako diputatuak, eta gehitu du A-15 errepidea ahalik eta garbiena



mantentzen lagunduko dutela, hartara elur asko pilatu ez dadin eta errepidearen irekiera osoa zaildu ez dadin ireki daitekeenean.

### **87 kamioi eta 11.400 tona gatz**

Oiarbidek jakinarazi du 2022-2023ko Bidezaintza Planak 4,8 milioiko aurrekontua izango du, azaroaren 15etik apirilaren 15era bitartean egongo da indarrean, eta Meteorologiako Euskal Agentziak izotz (edozein mailatan) edo elur abisuak ematen dituenean aktibatuko da (1.000 metrotik behera).

Aintzane Oiarbide Bide Azpiegituretako diputatuak gaur zehaztu duenez, Planak Aldundiaren eta Bidegiren 87 kamioi izango ditu, eta horiei, urtero bezala, Eusko Jaurlaritzak N-I eta A-15 errepideetan dituen ahalmen handiko garabiak gehituko zaizkie. Garabi horiek ibilgailu astun batek errepidea oztopatzen badu edo arazoak baditu erabiliko dira.

Gatz kopuruari dagokienez, 11.400 tona egongo dira 39 gordailutan banatuta. Urtero bezala, erakundeen arteko koordinazioa izango da elementurik funtsezkoena Neguko Bidezaintza Planaren funtzionamendurako. Bide Azpiegituretako Departamentuak, beraz, lankide izango ditu erakunde hauek: Bidegi, Gipuzkoako suhiltzaile etxeak, Eusko Jaurlaritza, Ertzaintza, Nafarroako Gobernua, eta Arabako nahiz Bizkaiko aldundiak. Mantendu egiten da arrisku koten aldaketa, iaz egin zena Eusko Jaurlaritzaren eta Euskalmeten kotetara egokitzeko. Hortaz, 0 arrisku maila aktibatuko da elurra 700 metroan egitea iragarrita dagoenen, bat eginez, horrela, Plana aktibatzen duenarekin eta gure errepideetako kotekin.

### **Bidezaintza zentroak**

2022-2023 Neguko Bidezaintza Plan honek bi zentro nagusi izango ditu: iaz abian jarri zen Bergarako zentroa eta 2020an inauguratu zen Arroa-Zumaiakoa. Oiarbide diputatuak azpimarratu du oso garrantzitsua dela elurra kentzeko makinak, gatz siloak eta neguan autobideak egoera onean izateko behar diren gainerako elementuak gordetzeko zentroak izatea. «AP-8, AP-1 eta A-636 errepideetarako Bidegiko neguko bideen dispositiboak bi zentro izango ditu. Bata, AP-8rako, Zestoa-Zumaiako sarreran, eta bestea, Bergarako iparraldeko sarrerakoa, AP-1 eta A-636 autobideetako beharrei erantzuteko. Bi zentroek kokapen egokia dute makinek gure autobideen beharrei ahalik eta azkarren erantzun ahal izateko».

### **Kontu handiz ibili**

Bidezaintza Planaren helburua da lurraldeko errepide sarea baldintza egokietan edukitzea: izotzik gabe eta elurrik gabe. Hala eta guztiz ere, diputatuak azpimarratu du garrantzi handikoa dela gomendioei jarraitzea eta arriskuak saihestea, ahal den neurrian. «Eguraldi baldintza oso txarretan, komenigarria da autoa ez hartzea, eta hori ezin bada, egiaztatzea ibilgailua egoera onean dagoela, eta baliabide egokiekin», azpimarratu du Oiarbidek. Orobat, dei berezi bat egin die ibilgailu astunak gidatzen dituztenei, eta gogorarazi die ezen, elurra badago, guztiz debekatuta dagoela aurrea hartzea eta ezkerreko erreitik joatea. «Ertzaintza arduratuko da debeku hori kontrolatzeaz. Eskaera hori gainerako ibilgailuentzat ere egiten dut: errepidea egoera txarrean dagoenean, komenigarria da ezkerreko erreia hustea, elurra kentzeko makinek eta larrialdietako ibilgailuek beren lana egin ahal izan dezaten», amaitu du.

## Con alertas de nieve por debajo de los 700 metros la parte guipuzcoana de la A-15 volverá a cerrarse al tráfico

***En enero se comenzarán las obras de los túneles de Oindolar y Gorosmendi, y, con alerta de nieve, los vehículos pesados deberán circular por la N-I o la autovía de Sakana y los ligeros podrán utilizar la carretera GI-2130 de Berastegi a Tolosa.***



La Diputación Foral de Gipuzkoa ha presentado los pormenores del Plan de Vialidad Invernal 2022-2023, en el que destaca que, a partir de enero, al continuar con las obras de los túneles de la A-15, la autovía se cerrará en la parte guipuzcoana, siempre que el riesgo de nieve sea de nivel 1 o superior. Así lo ha anunciado la diputada de Infraestructuras Viarias, Aintzane Oiarbide, que ha adelantado que la Diputación comenzará con las obras de refuerzo de revestimiento y adecuación de instalaciones de los túneles de Oindolar y Gorosmendi, y ante la imposibilidad de transitar por los desvíos de tráfico con los camiones quitanieves, se repetirán las medidas del año pasado. “Estas medidas no se tomarán hasta que comience la renovación de los dos túneles, que prevemos será a partir de enero. Una vez comenzados los trabajos, tal como sucedió con las obras de Belabieta, también se cerrarán por completo, para todos los vehículos, ambas calzadas, entre el enlace de Berastegi y el enlace de Andoain, siempre que las alertas de Euskalmet anuncien nieve por debajo de los 700 metros”. Se podrá recibir información puntual en la cuenta de Instagram ELURRA A-15 NIEVE que ya habilitamos para este fin durante el plan invernal pasado”, ha detallado la diputada. “Si se cierra la autovía, se coordinará con los equipos de Navarra el desvío del tráfico por otros itinerarios. Además, se prohibirá la circulación de camiones de paso por la GI-2130 colocando señales verticales y se coordinará con Tráfico para que este corte sea efectivo”. La calzada sentido Andoain-Iruña se cortará en Andoain, no permitiéndose el acceso de ningún vehículo. La calzada en sentido Iruña-Andoain se estrechará a un carril en las proximidades del enlace de Berastegi, acabando por un desvío de los vehículos hacia el enlace. En el enlace, la Ertzaintza hará una discriminación de vehículos redirigiendo hacia Navarra, por la A-15, a los vehículos pesados.



En su comparecencia Aintzane Oiarbide ha explicado que, ante la presencia de nieve, varios equipos de la A-15 bajarán a la N-I de apoyo y otros dos equipos ayudarán en la carretera GI-2130 de Tolosa a Leitza. “Cuando se activen los niveles de riesgo 1 al 4, se mantendrá abierto el tramo de la A-15 entre Berastegi y Leitza.”, ha aclarado la diputada de Infraestructuras Viarias, y ha añadido que se continuará manteniendo la calzada lo más limpia posible en el tramo cortado de la A-15, para que no haya gran acumulación de nieve y no se complique la apertura total de la carretera cuando corresponda; y a reforzar los equipos dispuestos en la carretera N-I”.

### **87 camiones y 11.400 toneladas de sal**

Oiarbide ha informado que el Plan de Vialidad Invernal contará con un presupuesto de 4,8 millones, que permanecerá en vigor entre el 15 de noviembre y el 15 de abril, y se activará cuando la Agencia Vasca de Meteorología emita los avisos por hielo (a cualquier cota) o nieve (por debajo de los 1.000 metros).

Según ha detallado hoy la diputada de Infraestructuras Viarias Aintzane Oiarbide, el Plan estará dotado de 87 camiones de Diputación y de Bidegi, a los que como todos los años se sumarán las grúas de gran capacidad que dispone el Gobierno Vasco en la N-I y la A-15, que se emplearán en el caso de que algún vehículo pesado obstaculizara la carretera o tuviera problemas.

El plan contará con 11.400 toneladas de sal repartidas en 39 depósitos. Como todos los años, la coordinación interinstitucional será el elemento clave para el funcionamiento del Plan de Vialidad Invernal. El Departamento de Infraestructuras Viarias trabajará, por tanto, en colaboración con Bidegi, con los parques de bomberos de Gipuzkoa, el Gobierno Vasco, la Ertzaintza, el Gobierno de Navarra y las diputaciones de Álava y Bizkaia. Se mantiene la modificación de las cotas de riesgo realizadas el año pasado para adecuarlas a las del Gobierno Vasco y Euskalmet, por lo que se activará el riesgo 0 cuando haya previsión de nieve a 700 metros, coincidiendo así con quien activa el plan y con las cotas de nuestras carreteras.

### **Centros de vialidad**

Este Plan de Vialidad Invernal 2022-2023 contará con dos centros principales: el centro de Bergara, que se puso en marcha el año pasado, y el de Arroa-Zumaia, que se inauguró en 2020. La diputada Oiarbide ha destacado la importancia de contar con un centro en el que resguardar las máquinas quitanieves, silos de sal y demás elementos necesarios para mantener en buen estado las autopistas en invierno. «El dispositivo de vialidad invernal de Bidegi para las carreteras AP-8, AP-1 y A-636 contará con dos centros. Una para la AP-8 a la entrada de Zestoa-Zumaia y otra para la entrada norte de Bergara para atender las necesidades de la AP-1 y la A-636. Ambos centros tienen una ubicación adecuada para que las máquinas puedan responder a las necesidades de nuestras autopistas lo antes posible”.

### **Extremar las precauciones**

El objetivo del Plan de Vialidad es mantener la red de carreteras del territorio en condiciones adecuadas: libre de hielo y nieve. Sin embargo, la Diputada ha recalcado la



importancia de seguir las recomendaciones y de evitar riesgos en la medida de lo posible. “En condiciones meteorológicas muy adversas, conviene evitar coger el coche y si ello no es posible, asegurarse de tener el vehículo en buen estado y con los recursos adecuados”, ha subrayado Oiarbide. También ha realizado un especial llamamiento a quienes conducen vehículos pesados, recordando que en caso de nieve está totalmente prohibido adelantar y circular por el carril izquierdo. “La Ertzaintza será la encargada de controlar esta prohibición. Esta petición también la hago extensiva al resto de vehículos; cuando la carretera está en mal estado es conveniente dejar despejado el carril izquierdo para que las máquinas quitanieves y los vehículos de emergencia puedan hacer su trabajo”, ha finalizado.

Zarautz, 2022/11/09